

# Zinema aretoetan ez dago euskaraz gozatzeko aukera handirik

Pantailak Euskarazek eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak iaz euskarazko zinema aretoetan izan zuen presentzia aztertu eta ondorio adierazgarria atera dute: euskarazko jatorrizko bertsoan, bikoiztuta edo azpidatzita eskaini den estreinaldi kopurua ez zen %2ra iritsi.



«Irati» filma iragan ostiralean allegatu zen zinema aretoetara; berez, iazko azaroan estreinatzea zen. Marisol RAMÍREZ | FOKU

## GARA | DONOSTIA

Join den ostiralen iritsi zen zinema aretoetara "Irati", Paul Urkijoren azken filma, eta honek «euskal ikuslerian sortu duen poza eta itxaropena» probestu nahi izan dituzte Pantailak Euskarazek eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak 2022. urtean zinemetan egon den euskarazko eskaintzari erreposoa egiteko. Ondorioa «adierazgarria» dela ohartarazi dute: 2022 osoan ez zen euskarazko fikziozko film bakar bat ere estreinatu.

Pantailak Euskaraz euskal ikus-entzunezkoen aldeko ekimenak 2022an Hego Euskal Herriko zinema komertzialean egondako estreinaldi kopurua eta eskaintzako filmen hizkuntza aztertu ditu, «eta datuak gordin bezain kezagarriak dira», adierazi zuen atzo ohar bidez.

Jasotako datuen arabera, euskarazko jatorrizko bertsoan, euskaraz bikoiztuta,

edo euskaraz azpidatzita eskaini den estreinaldi kopurua ez da %2ra iritsi. Gazteleraz edo gazteleraz azpidatzita, aldiz, filmen %100 eskaini da.

Iaz, 751 estreinaldietatik, jatorrizko bertsoa euskaraz 4 filmek izan dute, euskaraz bikoiztuta beste 11 eskaini dira, eta elebidunak edo hirueledunak direnak beste 2 izan dira. «Beraz, azken hauek kanpo utzita, estreinaldien %1,99 izan da euskaraz Hego Euskal Herriko zinema areto komertzialean. Honi gehitu behar zaio euskarazko filmek izaten duten pase kopurua gaztelerazkoek dutena baino askoz ere txikiagoa izaten dela; beraz, emanaldi kopuruari begiratuz gero, euskarazko eskaintza are txikiagoa litzateke: %1eko».

Ipar Euskal Herriko egoera «okerragoa dela pentsa daiteke», iradoki dute, datu zehatzik eskuratu ez den arren.

Bestaldé, «hainbat udalerritako erakundeen eta kultur

## 40 URTE ZAIN

**Pantailak Euskaraz eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren iritziz, «nekez uler daiteke» bi hizkuntza ofizial dauden lurralde batean herritarrei euskaraz bizitzeko aukerak horrela ukatzea eta, ondorioz, herritar guztien oinarritzako eskubidea mugatzea. 40 urte dituzten legeak gaur egun betetzen ez direla kexu dira.**

kudeatzaileen lanari esker, hauetako udal areto, kultur etxe, eta zinema geletan euskaraz presentzia handiagoa izan duela» eskertu dute. Baina argitu dutenez, ikerketa honetan hiriburuetako zinema komertzialeko datuak aztertu dira, «hauek baitira ikusle gehien dituztenak».

**Legez bermatzeko arauak** Ikus-entzunezkoetan euskaraz babestu eta hizkuntza eskubideak bermatzeko aldera Nafarroan zein EAEn legeak egon badaudela gogorarazi dute, eta hauek betearaztea eskatu. «Erakunde publikoen ardura da herritar guztien hizkuntza eskubideak zinemetan ere babesteko neurriak hartzea: beharrezkoa da euskararen presentzia legez bermatuko duten arauak jorratzea», adierazi dute.

Gainera, ohartarazi dute ikus-entzunezkoek «gero eta denbora gehiago» hartzen dutela gure aisialdian.

Buena racha



**Carlos GIL ZAMORA**  
Analista cultural

**E**l cine vasco está en un momento de gran aceptación general. Los premios y candidaturas así lo van certificando. Y lo importante es que se van viendo estos reconocimientos en diferentes partes o gremios del proceso productivo, lo que viene a transmitir una mejor sensación de posibilidad de crecimiento armonizado, colectivo, como apuntando a unas bases sólidas para ir aposentando los cimientos de una industria que aproveche estas sinergias en favor del todo.

Lo paradójico es que estamos en un momento en que, al menos desde una imagen externa, no existe un bloque de cine vasco que así se reivindicque. Ni que se sepa que se hayan adoptado medidas institucionales relevantes para que esta evolución tenga un impulso, se trata de unas circunstancias aleatorias en las que se han juntado el talento, la inversión, el sacrificio y el acierto en temas y formas para que además de su producción tengan esas películas una aceptación popular y ello lleve a un reconocimiento exterior lo que hace que se cree una magnífico círculo virtuoso.

El Oso de Plata recibido en Berlín por la niña Sofía Otero puede ser paradigmático, ya que a esa edad no existe una escuela de interpretación que la respalde, sino unas capacidades innatas que la dirección ha sabido aprovechar para convertir toda su frescura y naturalidad en una excelencia. Hay que aprovechar los momentos y parece evidente que se está pasando una merecida buena racha. Felicidades.